PAMIELA
argitaletxea

Egilea: PATZIKU PERURENA

Titulua: ***Bordarien sorrera eta bilakaera Leitzan eta Areson (1427-1925)***

Saio eta testigantza, 222

ISBN: 978-84-9172-117-8

24 x 17 cm • 528 or.

Salneurria: 25,00 €




## *Bordarien sorrera eta bilakaera Leitzan eta Areson (1427-1925)*

Liburu honi esker, pozik eskaintzen dizugu orain arte gai honetaz egin den azterlanik zehatzena. Horregatik geratuko dira Leitza eta Areso, betirako aitzindari Nafarroan, eta are Euskal Herrian, honetaz lehendik esandako kontu zuri asko gorritzen.

Leitzan bordarik zaharrena 1614 aldekoa da: Franki, Manuel Lasarte bertsolari haundia jaio zenekoa; eta 1726ko etxe erroldan 69 bordari ageri dira, nor bere bordan bizi dena familian; eta gezurra badirudi ere, lau ardiborda besterik ez.

Aresoko kasua, guziz bestelakoa da, 1636an Arantzegietan galerazitako bordaren auziak hauxe baitio 1636 urtean: «*aunque an querido obrar bordas en sus propias heredades se les a denegado y an dejado de edificar*»; eta 1786ko erroldan oraindik, bordari bat bakarra ageri da jendea bizi denekoa: Bordaren borda, hain zuzen; nahiz orduko 101 bordatan jendea bapo bizi Leitzan.

Eta holako beste mila datu zehatz, interes haundiko ikerlan honek jasotzen dizkizunak, 1427tik 1925era arte, etxe bakoitza bere bordarekin uztartuz, Patziku Perurenaren estilo bizi eta jostarian.



### Patziku Perurena

Goizuetako *Aitasemegi* auzoko bordari giroan jaio zen 1959an, baina Leitzako *Amazabal* kalean bizi da hamabi urte zituenetik. Hala ere, sekulan ez omen du galdu, bere izate guzia zor omen dion bordari giroko eskola estzeptiko hura. Esku artean duzun liburu hauxe lekuko, eta ondotik etorriko direnak. Baina lehendik onduak ere baditu.

Hamaika artikulu, iritzi eta kontu bixiren artean, hona saiorik ezagunenak: *Harripilatan ezkutatzen zeneko apo tipiaren burutazioak* (1990), *Koloreak euskal usarioan* (1992), *Euskarak sorgindutako numeroak* (1993), *Leitzako errege erreginak* (1996), *Trapuan pupua* (2001), *Harrizko pareta erdiurratuak* (2004), *Dakiguna ikasten* (2007), *Goizuetan bada gizon bat* (2010), *Goizuetako etxeen izenak* (2011), *Hilen xarma* (2015), *Goizuetako dokumentu zaharrak (1324-1918)* (2017), *Leitzalarreko Unaiak (1683-1771), Zezenak plazan, Goizuetan eta Leitzan (1578-2017)* (2018).

**Pamiela**
Ezkaba industrialdea. K kalea, 31. 31194. Arre (Nafarroa). arre@pamiela.com Tel.: 948 32 65 35
**www.pamiela.com**